

## SOZIOLINGUISTIKA IRAKASKUNTZAREN ARGI-ILUNAK

Xabier Isasi

UEUko kidea eta UPV/EHUko irakaslea

Gipuzkoan lau unibertsitatek dauzkate campus edo ikastetxe desberdinak: unibertsitate konfesionalak, Nafarroako Unibertsitatea eta Deustuko Unibertsitatea; publikoa —UPV/EHU—; eta pribatua, Mondragon Unibertsitatea. Horiez gainera UNED —Universidad Nacional de Educación a Distancia— eta esparru unibertsitarioan diharduten beste zenbait erakunde aitatu behar ditugu, Eusko Ikaskuntza eta Udako Euskal Unibertsitatea, besteak beste.

Gipuzkoan dauden hiru unibertsitate garrantzitsuenak begiratzuz gero honelako zentroak aurki ditzakegu:

Zentro horietako ikasketetan ez da existitzen soziolinguistikari zuzenean loturiko ez lizentziaturarik ezta diplomaturarik ere. Gabezi hori ez da Gipuzkoakoa soilik, Euskal Herriko unibertsitateetan, oro har, soziolinguistika alorrean berariaz ez da existitzen goi-mailako titulaziorik.

UPV/EHU	MU	Deustu
Arkitektura G.E.T.		
Enpresa Ikasketen U.E.	Enpresa Zientzien Fakultatea	Espezializazio Masterra Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza eta Kudeaketako Informatika
Erizaintzako U.E.		
Unibertsitate Eskola Politeknikoa	Goi-mailako Eskola Politeknikoa	
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien F.	Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	Komunikazioa / Turismo
Informatika Fakultatea		
Irakasleen U.E.		
Psikologia Fakultatea		
Zuzenbide Fakultatea		

Zentro horietako ikasketetan ez da existitzen soziolinguistikari zuzenean loturiko ez lizentziaturarik ezta diplomaturarik ere. Gabezi hori ez da Gipuzkoakoa soilik, Euskal Herriko unibertsitateetan, oro har, soziolinguistika alorrean berariaz ez da existitzen goi-mailako titulaziorik.

HIZNET ikastaroarena salbu, gradu osteko ikastaro eta masterretan egoera antzekoa da. Unibertsitateek, oro har, ez dute garatu alderdi honetako ikasketa proiekturik. Egia esan, unibertsitate mailako irakaskuntza eskaintzan, gradu eta gradu osteko titulazioetan, ez dugu ezer aurkitu. Gasteizko campusean, Filologia eta Geografia Fakultatean *Euskal Filologia* lizentziatura eskaintzen dute; lizentziatura honen helburua, web gunean, honela zehazten dute: *Euskal hizkuntzaren jatorria, eraketa, bilakaera eta osakera jakin-ikasteko, bai eta bere gramatika-egitura, etimologia eta hitzen esanahien bilakaera, literatura eta irakaskuntza-teknikak ere*. Titulazio hau hemen aipatzea beharrezkoa iruditu zaigu, Euskal Filologia euskara eta euskararen egoerari lotutako formazio proiekturik garatuena eta aitzindaria izan delako.

**Eztabaida hor dago: beharrezkoa da jakintza-  
alor honetan goi-mailako  
titulaziorik?**

**Euskalgintzan aspaldiko  
kezka eta eskakizuna da,  
bai, baina ez dirudi  
unibertsitateetan kezka  
handirik sortzen denik.**

**Argi dago, euskararen  
sustapenerako,  
plangintzarako,  
ebaluaketarako eta  
prozesuaren  
iker-kuntzarako  
berariazko formazio ildoak  
beharrezkoa dela.**

**Tamalez, eginkizun  
daukagu.**

Halere, ezin esan dezakegu azken urteotan garapen handirik izan denik. Gradu-ko ikasketetan hautazko ikasgaietan zerbait aurkitu dugu. Baina irakasgai horiek eskaintza solteak dira. *Inguma* euskal komunitate zientifikoaren datu-basean arakatu dugu eta honoko irakasgaien eskaintza aurkitu dugu:

**Hizkuntzekiko jarrera eta jokabideen azterketa**

**Euskararen soziolinguistika**

**Garaiko gizarte prozesuak**

**Gizarte psikologia eta hizkuntza**

**Hizkuntz gatazka eta hezkuntza sistema**

**Hizkuntz plangintza eta euskara**

**Hizkuntza komunitateak eta gatazka linguistikoak**

**Hizkuntza-politika eta plangintza**

**Hizkuntzaren soziologia I: hizkuntzaren gizarte teoria**

**Hizkuntzaren soziologia II**

*Inguma* datu-baseak hamar ikasgai erakutsi dizkigu, gehienak hautazkoak eta kreditu gutxiak. Irakasgai horiek, gehienak, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean eskaintzen dira (Leioako campusean) eta bakanen bat Gipuzkoako Ibaeta campusean.

Azaleko azterketa honen argitan ondorio batzuk atera ditzakegu:

Soziolinguistika jakintza-alar zabalean ez dago inolako titulazio eskaintzarik ez gradu-ostean ezta gradu-ostean ere.

Jakintza-alar honetan aurki dezakegun eskaintza apurra oso sakabana da eta ez du osatzen *corpus* homogeenorik.

Eskaintzen diren irakasgaiak gehiago dirudite irakasle eta ikertzaile bakan batzuen ekimena ikasketen ildo adostuen ekarpenak baino.

Eztabaida hor dago: beharrezkoa da jakintza-alar honetan goi-mailako titulaziorik? Euskalgintzan aspaldiko kezka eta eskakizuna da, bai, baina ez dirudi unibertsitateetan kezka handirik sortzen denik. Argi dago, euskararen sustapenerako, plangintzarako, ebaluaketarako eta prozesuaren iker-kuntzarako berariazko formazio ildoak beharrezkoa dela. Tamalez, eginkizun daukagu.■